| BEZEROAK | DURANGALDEA |
|---|---|
| | 16800 |
| PREZIOAK | 5,00 € |
| | |
| DIRU SARRERAK | 84.000,00 € |

## 5. ATALA: KANALAK

• <u>BANAKETA KANALAK</u>:

Gure enpresak banaketa kanal zuzenak erabiliko ditu bezeroek erositako produktuak beraien etxeetara helarazteko. Horretarako bigarren eskuko furgoneta bat erabiliko dugu (18.990€ kostatu zaigu) eta gutako bat izango da produktuen errepartoa egingo duena. Hurrengoa izango da gure banaketa antolakuntza: 8:00retatik 12:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egingo ditugu banaketak, langileak 8 ordu lan egin ahal dezan, astelehenetik ostiralera bitartean. Asteburuetan ez da banaketarik egongo eta euskal autonomia erkidekogo jai egunetan ere ez. Banaketak durangaldeko hurrengo herrietan izango dira: Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrion, Ermuan, Garai, Iurretan, Izurtzan, Mañarian, Mallabian, Otxandion, Zaldibarren eta Zornotzan.

Azkenik banaketei dagokienez, banaketak eskariaren arabera egingo ditugu, ez dugu ordutegi zehatz bat astean zehar izango. Adibidez, astelehenean Abadiñoko eskari bat badugu hori banatuko dugu lehenengo.





• <u>KOMUNIKAZIO KANALAK</u>:

Guk hainbat sare sozial erabiliko ditugu bezeroek gure enpresa ezagutzeko, horien artean:

**Instagram**: Gure bazkideen produktuak erakutsiko ditugu bideo/argazkien bidez eta gure bitartekaritza zerbitzuak aurkeztuko dizkiegu gure bezero posibleei.

**Facebook**: Hau oso garrantsitsua izango da, sare sozial honetan erregistratuta dauden pertsona gehienak bataz-beste 40-64 urte dituzte eta.

**Twitter**: Gure enpresaren jarraipena argitaratuko dugu.

Sare sozialetara egoneroko eskariak igoko ditugu jendeak gure zerbitzua ikusi ahal izateko eta bezeroen galderak erantzungu ditugu, horrera gure enpresaren eta bezeroen arteko harreman ona egongo da

• <u>SALMENTA KANALAK</u>:

Guk webgune bat eta aplikazio bat sortuko ditugu bezeroak gure enpresak eskaintzen dituen produktuak erosi ahal ditzaten, ez dugu denda fisikorik edukiko,. Kudeaketa guztia aplikazioaren bitartez egingo da eta produktua bezeroarengana furgoneta bidez helduko da. Gure kasuan ez dugu denda fisiko bat izango eta hori horrela izanik gastu asko aurreztuko ditugu.




